



Zelaieta

etxebizitza

Aldacrak: Murgoitiozelaieta / Gomendiozelaieta
Ahozkoa: Séleta / Selaiéta

“... la casa mayor o principal denominada Celayeta... sita en la Cofradía de Murgoitio de la anteiglesia de Berriz es de dos viviendas, compuesta de piso bajo con sus cocinas, un cuarto y cuadras, y de principal, con cuartos, camarotes y pajares; ocupa con inclusión de las tejabanas, horno, zaguanes, una pequeña huerta y un campito contiguos, ciento cuarenta y medio estados o cinco áreas treinta y cuatro centiáreas...”
DJE 4/239 or. (1881)



43° 9' 50" 2° 34' 6"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

Bizitza biko baserri honen gaineko lehen aipamenak XVIII. mendeko Bizkaiko su-errolde-tan aurkitzen ditugu: *Celayeta* (1704) eta *Celeta* (1796). Inguruan aurkitzen zen beste baserriak (**Ikus Zelaiaetazpikoa**) bereizteko, *Celaietta Suso* (1807, BAHF, A134/34) izena eman zitzaion XIX. mende hasieran ere. Mende horretan zehar hainbat ageritan agertzen zaigu, izen desberdinekin, hala nola *Gomendio Celayeta* (1830, BAHF, A219/17). Dena den, XX. mendean *Celayeta* (1910, BUA, RU) izena agertzen zaigu batez ere. Auzotarren artean, *Murgoitiozelaieta* eta *Gomendiozelaieta* moduan ezagutzen da, eta ahozkotasunean *Séleta* eta *Selaiéta* erak erabiltzen dira batez ere.

Baserri galanta, isuri biko teilatuduna. Guztiz simetrikoa da eta bi etxebizitzaren banaketa

zeharo lortua ezker-eskuman. Mendeetako denboraren joana ohikoak zirenak baino pisu bat gehiago jaso ziotelako eta balkoietan ere igartzen da; harrizkoak, lehenengo pisukoak eta egurrezkoak, gainekoa. Nolanahi ere, bi arku dotoreak orijinalak dira eta euren nagusitasuna gaineko balkoiek indartu baino ez dute egiten, eta bigarren pisuko balkoi luzeak bertikaltasuna hausten laguntzen du. Etxearen alboko gorputzetan, bi dira solairu bakoitzean zabaldu zirenak, txikienak izanik ganbarakoak eta bigarren solairuko izkinakoak. Ertzetako harlanduaren koloreak kontraste bizia egiten du hormen zurriarekin. *Gangutia* (**Ikus Gangutia**) (1912) eta *Urretxandikoaren* (**Ikus Urretxandikoa**) antz handia du eta ia berdintsutzat hartuko genituzke hirurak. Beraz, etxea XX. mende hasierakotzat har daiteke.

toponimia

Toponimo eta etxe-izen arrunta deitura ere bihurtu zena. Osagaiak “zelai” hitz arrunta eta “ugaritasun” edo lekua adierazten duen -eta atzizkia dira: ‘Zelaiak’ edo ‘Zelaia’. Gogoratu behar dugu “zelai” hitzak bi adiera dituela, hau da, “leku laua” eta “belardia”. Horren erakusgarri Mexikoko Zelaia hiria dugu: euskaldunek sortu zuten, eta izen hori eman bide zioten leku lauan, zelai batean, alegia, zegoelako.